

## EZAGUTU GURE SORKUNTZA ETA DISEINUKO GRADUA

- **Jakintza adarra:** Diseinua.
- **Campusa:** Leioa, Bizkaia, UPV/EHU.
- **Ikastegi antolatzailea:** Arte Ederren Fakultatea.
- **Gradua/k:** Sorkuntza eta Diseinua
- **Garapen-lekua (helbidea):** Arte Ederren Fakultatea. Sarriena Auzoa, z/g. Leioa (Bizkaia)

### 1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Sorkuntza eta Diseinuko Gradua labur ezagutzera zuzendutako jarduera, saio praktikoko batzuen bidez.

### 2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

Sistema grafikoaren kontzeptua. Sistemaren kontzeptua Diseinu Grafikoaren arlo desberdinetan; arlo bakoitzari lotutako proiektuen laginak. Moduluaren kontzeptua eta izan ditzakeen aplikazioak. Diseinu eta jasangarritasunari lotutako proiektuak. Garapen jasangarriko helburuen (GJH) xedeak definitzea eta identifikatzea. Giza-irudiaren marrazketa.

### 3. EGINGO DIREN EKINTZAK

Lehenik, 2023/2024 ikasturteko Diseinu Grafikoa ikasgaiko ikasleen Gernika (k)/Guernica (s) kartelen erakusketa bisitatuko dugu, Fakultateko Erakusketa aretoan dagoena. Jarraian, sistemaren kontzeptuaren bidez, diseinu grafikoaren hainbat arlo aztertuko dira, ikasle eta ikasle ohien lanak erakutsiz. Azkenik, sistemaren kontzeptua praktikan jarriko dugu, ezaugarri alfabetikoak eta zeinu ikonografikoak sortzeko moduluekin esperimentatuz.

15 minutuko atsedenaldiaren ondoren, giza-irudia marrazten hasiko gara. Horretarako, ikasleek paperak, karrozeria-zinta eta marrazketa-papera izango dituzte eskura, giza-irudiaren apunte azkarrak egiteko. Paperetan nola lan egin, orbanaren kontzeptua eta berunaren, sartzearen eta tentsioen oinarriko kontzeptuak ikusiko ditugu.

Azkenik, diseinuko proiektu-jardueraren eta jasangarritasunaren arteko erlazioan sartuko dira ikasleak; I. Proiektuak ikasgaiko ikasleen lanak eta Gradu amaierako lanak erakutsiko dira, Agenda 2030ekin lerrokatuta, diseinuaren hainbat eremutatik, eta taldekako praktika bat planteatuko da, lan horiek inplikatzeko diren GJHen xedeak identifikatzeko.

#### 4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordutegia	Plazak
2024-05-29	Gaztelania	Goizez	10:00-14:00	20
2024-05-29	Euskara	Goizez	10:00-14:00	20